



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

## PRENTSA OHARRA

### **Foru Aldundiak 65 urtetik beherakoei zabaldu deutse gizarte-osasun lekuen zerbitzua**

Bilbon, 2013ko otsailaren 15ean

Gizarte Ekintzako Foru Diputatuak, Pilar Ardanza andreak, adierazo dau gaur Batzar Nagusietan bere Sailak, Osakidetzagaz batera 65 urtetik beherakoentzat finantzeta dauen gizarte-osasun zerbitzua zabaldu dauela. Foru Aldundia “une honetatik bertatik” ari da lekuak eskaintzen zerbitzu horreen onuradun izateko ezaugarriak betetan dituen 18 urtetik gorakoei. Ardanzak hori adierazo dau Bizkaiko Ganbarako Gizarte Ekintzako batzordean, eta bertan jakinarazo dau Leioako Egoitzan egozan 36 gizarte-osasun lekuak Txurdinagako Virgenetxe zentro “modernora” eroan dirala. Adierazo dauenez, horrek ez dau itsasadarraren Eskumaldean dagoan zentroaren “itxiera” eragin, Bilduk salatu eban moduan.

Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzagaz batera, eskaintzen dauen gizarte-osasun zerbitzua erabilten dauen taldea, osasun arreta “ez konplexuak” behar dituen pertsonak osatzen dabe. Pertsona horreek familia egoera gaxa daukie, eta horrek ezinezkoa egiten dau euren etxebizitzetan behar dan arreta eskaintzea. Zerbitzu horri buruz, Ardanzak adierazo dau, adin mugak zabaltzeko erabagi hori hartu dan arren, une honetan ez dagoala itxaron zerrendarik. Ondoren, Bildu taldearen bozeroaleak, Irune Sotok, ukatu egin dau Diputatuak esandakoa.

Bere parte hartzean, Aldundiko arduradunak esan dau 36 pertsonak Txurdinagako zentroro eroatea “ona dala erabiltzaileentzat”, eta Aldundiaren helburua, egunero paziente bakotxarengaitik 122 euroko kostua daukien plaza horreek “ahalik eta gehien” optimizatea dala. Foru arduradunak holan erantzun deutso Bilduri, talde horrek diputatuaren batzorderatzea, taldearen ustez, leku aldaketa hori, Leioako IFASEko egoitzaren gizarte-osasun zerbitzua modu “ia sekretuan” ixtea dalako.

Diputatuak ukatu egin dau Foru Aldundiak “ezkutuan” jokatu izana, eta zentroko arduradunakaz eta bertako langileakaz hamar bilera inguru aitatu dauz, pazienteak IFASEko zentro batetik, “IFASEko beste zentro modernoago eta hobeto komunikauta dagoan batera” eroatearen baldintzak azaltzeko.

## IFASEKO APARTEKO SOLDATAREN ITZULKETA

Aldundiko arduradunak Socialistas Vascos taldeak eskatuta be hartu dau parte, IFASEko aldibaterako langileei aparteko soldatearen zati proportzionala itzuli dagiela eskatzeko egindako eskariari buruzko azalpenak emoteko. Talde horren eretxiz, erakundeak bialdutako gutunean, ordainketaren zati proportzionala itzultzen ez daben langileen kontra “lege egintzak” hasiko dituala adierazoten da. Socialistas Vascos taldeak, SATSE sindikatuak, erakunde publikoak erabilitako “formak” dirala-ta egindako salaketea jaso dau. Diputatuak adierazo dauenez, jakinarazpen hori, “beste inolako asmorik ez daukan” administrazio izapidea baino ez da. “Ez da mehatxua, egiten dauen gauza bakarra, dirua itzultzeko jarraitu beharreko prozedura adierazotea da”, esan dau.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

## MISERIKORDIAKO EGOITZA

Azkenik, Bildu eta Socialistas Vascos Taldeek adierazo dabe Miserikordiako Egoitzako (Bilbo) langileei soldatea %10ean gitxitu jakela 2013. urterako eta izoztu 2014. eta 2015. urteetarako. “Kontuan izanik egoitza horregaz Aldundiak 175 plaza hitzarturik dituala eta Aldundia bera egoitza horretako Administrazio-Batzarreko kide dala”, talde biok Ardanzaeren batzorderatzea eskatu dabe, langileen soldatea murrizterakoan Aldundiak ze zerikusi izan dauen azaldu dagian.

Ardanzak adierazo dau hitzartutako plazak 136 dirala, eta Foru Aldundiak egoitza horretako Patronatuko Batzordean eukan partaidetza txikitu ebala 2006an, eta ordutik “parte hartze teknikoetara eta azalpenak emotekoetara mugatzen dala”. Foru Aldundiko arduradunak esan dauenez, Aldundiak betetan dauen lekua “testimoniala” da, eta, hori dala eta, ez dau “lanagaz erlazonatutako” erabagietan parte hartzen. Adierazo dauenez, Miserikordiak hartutako neurria “gogorra” da, eta 2,5 milioi euroko galera murriztera dago bideratuta. Galera horreek Patronatuak estaldu dauz bere ondareagaz. Ondarea 7,5 milioikoa da. erakunde horretako zuzendaritzak, erakundearen kontuak batzar nagusietako talde guztien esku jarteko erabagia hartu dauela adierazo dau Ardanzak.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

NOTA DE PRENSA

## **La Diputación abre su servicio de plazas socio-sanitarias a personas menores de 65 años**

Bilbao, a 15 de febrero de 2013.

La Diputada foral de Acción Social, Pilar Ardanza, ha revelado esta mañana en las Juntas Generales de Bizkaia que su departamento acaba de abrir el servicio socio-sanitario que cofinancia junto con Osakidetza a las personas menores de 65 años. La Diputación está ofreciendo “ya” plazas a mayores de 18 años que cumplen con los requisitos para ser beneficiarios de estos servicios. Ardanza ha hecho este anuncio en la comisión de Acción Social de la Cámara vizcaína en donde ha informado del “traslado” de las 36 plazas socio-sanitarias existentes en la Residencia de Leioa al “moderno” centro Virgenetxe de Txurdinaga. Ha aclarado que esta operación no ha supuesto el “cierre” del centro de la Margen Derecha, como había denunciado Bildu.

El colectivo que se beneficia del servicio socio-sanitario que ofrece la Diputación conjuntamente con el Gobierno Vasco -un total de 110 plazas en Bizkaia- son personas con necesidades de cuidados sanitarios “no complejos” que arrastran una situación familiar difícil que no permite la atención y supervisión en su propio domicilio. Con respecto a este servicio, Ardanza ha dicho además que, pese a tomar esta decisión de ampliar los límites de edad, en estos momentos no existen listas de espera, algo que ha sido negado después por la portavoz de Bildu, Irune Soto.

En su intervención, la responsable foral ha subrayado que el traslado de las 36 personas al centro de Txurdinaga “beneficia a los usuarios” y que la Diputación busca optimizar “al máximo” estas plazas que tienen un coste de 122 euros diarios por paciente. La responsable foral contestaba así a Bildu, grupo que había solicitado su comparecencia por entender que este desplazamiento suponía el cierre “semi-secreto” del servicio socio-sanitario de la residencia pública del IFAS de Leioa.

La diputada ha negado que la Diputación haya actuado “a escondidas” y ha citado hasta una decena de reuniones con responsables del centro y sus trabajadores, con el objeto de explicarles las condiciones del “traslado” de los pacientes de un centro del IFAS a “otro centro del IFAS más moderno y mejor comunicado”.

### **DEVOLUCIÓN DE LA PAGA “EXTRA” EN EL IFAS**

La responsable foral comparecía también a petición del grupo Socialistas Vascos para ofrecer explicaciones sobre la devolución de la paga extraordinaria solicitada a los trabajadores eventuales del IFAS. Según este grupo, la carta enviada por este organismo anunciaba “acciones legales” contra aquellos empleados que no se avenieran a la entrega de la parte proporcional de dicha paga, recogiendo así las protestas del sindicato SATSE al denunciar las “formas” utilizadas por el organismo público. La Diputada ha sostenido que esta comunicación es un trámite administrativo “sin ninguna otra intención”. “No es una amenaza, simplemente indica el procedimiento a seguir para la devolución del dinero”, ha manifestado.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

## RESIDENCIA DE LA MISERICORDIA

Por último, los grupos Bildu y Socialistas Vascos se hacían eco de la rebaja de un 10% del sueldo de los trabajadores de la residencia de La Misericordia (Bilbao) en el año 2013 y la congelación para 2014 y 2015. “Teniendo en cuenta que se trata de una residencia con la que Diputación tiene concertadas 175 plazas y, además, la propia Diputación forma parte de la Junta de Administración de dicha Residencia”, ambas formaciones solicitaban en su escrito la comparecencia de Pilar Ardanza, a fin de que explicara “el papel” que ha jugado la Diputación en esta rebaja del sueldo de los trabajadores.

Ardanza ha informado de que, en realidad, las plazas concertadas son 136 y de que la Diputación redujo su participación en la Junta de Patronato de esta residencia en el año 2006 a “intervenciones técnicas y explicativas”. Según la responsable foral, el papel de la Diputación es “testimonial”, lo que entraña que el ente foral no participe en decisiones de "carácter laboral". Ha señalado que la medida adoptada por La Misericordia es “dura” y que quiere contribuir a la reducción del déficit de 2,5 millones de euros, unas pérdidas que el Patronato ha cubierto con su propio patrimonio, cifrado en 7,5 millones. Ardanza ha trasladado la decisión de la dirección de esta institución de poner a disposición de los grupos junteros las cuentas de la institución.